



K.a. IV. mendera bidaiatzea proposatzen dizugu, Bigarren **Burdin Aroko herrixka gotortu** batera. Bolunburuko kastroa ia-ia bere horretan mantendu da gaur egun arte. Kadagua ibaiak zeharkatzen duen Saltzedo Haraneko muino txiki batean dago, 320 metroko altueran.

Gotorlekuak **4.000 m<sup>2</sup>**-ko azalera hartzen du, harresiz inguratutako esparru batek eta muinoaren hegoaldeko fronte osoa zeharkatzen duen kanpoko hobi batek mugatuta. “**Itxitura**” honi **Bolunburuko haitzak** ematen duen defentsa naturala gehitzen zaio iparraldeko aldean.

Harresia **harlangaitzezkoa** da, eta batez beste hiru metroko zabalera eta bost metrotik gorako altuera izan zuen jatorrian. Hego-ekialdeko muturrean kastroak izan zuen **ate bakarra** dago. Etxebizitzak oinplano angeluzuzeneko **etxolak** ziren, material galkorrez eginak. Haien egituratik, zimenduen hondarrak besterik ez dira gelditzen. Halaber, **estalpe, tailer eta biltegi** izan ziren beste estruktura batzuk identifikatu dira ere.

Kastroko biztanleen eguneroko bizitza nolakoa zen ulertzeko aukera ematen digu multzoak. Gaur egun badakigu herrixkaren **ekonomia nahiko dibertsifikatua** zela. **Abeltzaintzan**,

**iraupeneko nekazaritzan** (zerealen eta lekadunen laborantzan), basoko produktuen bilketan (etxebizitzan barruan ezkurra kiskali ugari aurkitu dira) eta **burdinaren metalurgian** oinarritzen zen. Baina tokiko berezitasun handiena, beharbada, hareharriz egindako **esku-errota** ugari agertu izana da.

Gainerakoan, ingurueto toponomia adierazgarria da, “**sorginak**” aipatzen baititu (Zallako jentilizioetako bat dena, hain justu). Baliteke kondairak herrixkaren biztanleei lotuta egotea, eta **Sorginen Zelaian** dute adierazpenik handiena, bertan akelarreak egiten eta biribilean dantzatzen omen baitzuten ibaiaren ondoan.



### Non jan?

#### Aretxaga

Tel.: 626 163 542

#### El Porron

Tel.: 946 390 754

[www.restauranteelporron.com](http://www.restauranteelporron.com)

#### Cervecera Zalla

Tel.: 946 39 06 21

[www.cervecerazalla.com](http://www.cervecerazalla.com)

### Non lo egin?

#### Hotel Ibarra

Tel.: 618 789 720

[www.hotelibarrazalla.com](http://www.hotelibarrazalla.com)

#### Pensión Txikote Ostatau

Tel.: 946 390 178

#### Bisitatu txakolin-upategi bat

##### Virgen de Lorea

Tel.: 629 455 620

[www.bodegasvirgendelorea.com](http://www.bodegasvirgendelorea.com)

#### Txakoli Txabarri

Tel.: 658 728 865

[www.txakolitzabarri.com](http://www.txakolitzabarri.com)

### Erosi Zallako tipula morea

#### Ana Mari Llaguno

Tel.: 619 471 700

#### Mertxe Vivanco

Tel.: 946 390 820

### Bisita gidatuak Bolunburuko kastroa

#### Alboan

Tel.: 605 757 420

[www.alboanenkarterri.com](http://www.alboanenkarterri.com)

#### Leykatur

Tel.: 616 498 621

[www.leykatur.com](http://www.leykatur.com)

### Nola lortu?



#### Bizkaibus

**A0651** Bilbao-Balmaseda  
Geltokia **El Longarren**



#### Feve

Bilbao - Balmaseda

**Ibarrako** atsedenekua

